

Arte garaikidearen sorkuntza prozesuetan murgilduko ditu andoaindarrak 'FORMAL FORMAL' erakustetak

Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur eta Larraitz Torresen diziplina-anitzeko lanak jasotzen ditu gaur inauguratu den mostrak

Gaurtik aurrera andoaindarrak arte garaikidearen praktiken eta sormen prozesuen barnean sakontzeko aukera dute Bastero Kulturgunearen erakusketa aretoan *FORMAL FORMAL* erakusketari esker. **Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur eta Larraitz Torres** sortzaileen diziplina-arteko lanak osatzen duten mostrak, ikusleak sorkuntzaren partaide bilakatuko ditu eta, helburu horrekin, herriko talde ezberdin eta ikasleekin jarduerak antolatuko dira.

Hilabete osoan zehar (urriaren 30era arte) eskainiko den proposamen berri hau gaur inauguratu dute **Txitxu Ruiz** Hezkuntza eta Kultura zinegotziak, lau artistek eta **Maite Alonso** bitartekariak. Testuen lanketan **Iñigo Gómez, Itziar Gutierrez** eta **Ane Lekuona** aritu dira.

Hain zuzen, proposamen honen dibulgazio aspektuak nabarmendu ditu zinegotziak, "arte garaikidera hurbildu eta sormen-prozesuak gertu-gertutik ezagutu eta artistekin batera hausnar egiteko aukera paregabea" eskaintzen duelako erakusketak, "ikusle huts izatetik harago, sorkuntzaren konplize bilakatu gaituelarik, ikuslea bera sortzaile ere bihurtuz". Herriko hezkuntza zentroak, ESCIVI eskola barne, eta Bertso Taldea partaide izango dira.

Artisten sorkuntza prozesuetara eta arte garaikidearen praktiketara gerturatzeko aukera da *HARRIAK 2021* programak dakarren proposamena. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailak bultzatutako ekimena da eta elkarlanean lotzen ditu artistak hasiberriak, bitartekariak eta erakusketa-areto ezberdinak. Andoainen Bastero Kulturgunean garatuko da ekimena, erakusketa eta dibulgazio ekintzak hartuko dituen tokia.

FORMAL FORMAL-ek bere baitan hartzen ditu lan plastikoak, soinuak, testuak eta *performance*-a, espresio-bide ezberdinen arteko loturak eta elkarrizketak azalarazteko xedez. Lehenik hitzetatik jota, hortik soinu eta abestietara eta azkenik objektuetara iritsiz, plazaratzen diren galdera irekiak honakoak da: *Abesti bat al da erakusten dena? Zer inplikazio dakartza mezuari zuzenean erantzuteak? Izendatzen den unetik bertatik hasten al da zerbait existitzen?...* Marrazkiak, soinua, eskultura gorputza eta irudia erabiliko dira espresio-bide gisa. Hausnarketa hau, gainera, partekatua izango da eta dibulgazio ekintza ezberdinen bidez topaketak, jarduerak eta elkarrizketak antolatu dira herriko talde eta eragile ezberdinekin, bereziki, gazte eta nerabeei zuzendutakoak.

4 artista gipuzkoar multidiziplinar

Ane Azkonak (Donostia, 1997) Arte Ederretako ikasketak egin zituen Bilbon, Atenas arte-akademian ikasi ondoren. 2017tik bakarkako eta taldekako erakusketan parte hartzen du, besteak beste, *In and/or Out*, Thessalonikiko City Fuck galerian (Grezia). Lanak harreman



Andoaingo Udala

eta identitate alderdiak ditu, iruditegi kolektiboko elementu esanguratsuen eta pop kulturaren arteko kontzeptuzko topaketak behartzeko. **Sanda Cuesta** hondarribiarraren praktika eskulturatik abiatzen da, nahasmendua bilatzeko nahiarekin, arreta bideratuz. *Zarata Fest, Le Club Larraxkito, Ertz, Mugatxoanen Emisio 0* bezalako soinuarekin lotutako hainbat testuingurutan aurkeztu du lana. **Larraitz Torresek** (Irun, 1979) bere lanetan iruditegi komun materialak erabiltzen ditu beste elkar-ulertze batzuk berriz adierazteko eta ahalbidetzeko zubi gisa. Honako lan hauek aurkeztu ditu, besteak beste: *Permanent Vacation Versión* (Artium), *Inicio-Nowness* (La Casa Encendida), *The landscape The song The make up* (Marfa, AEB), *Sec.Int.Night* (DAI/Casco, Herbehereak) edo *Alphabet Orchestra* (Tabakalera, Casco-Utrecht, Dai-Arnhem). **Jone Laspiurrek** (Donostia, 1995) Arte Ederrak ikasi zituen Leioan eta Buenos Aireseko UMSAn eta eskultura interesatuta nagusiki. Donostiako Azpi espazioan aritu izan da bere lana garatzen, eta 2019an Eusko jaurlaritzaren sorkuntzarako laguntza jaso zuen *TOO LESS TO EDO TOLESTU* proiektua garatzeko.

Erakusketa, doako sarrerarekin, gaurtik aurrera egongo da ikusgai, ohiko ordutegian: astelehen-ostiral 18:30-20:00 eta larunbatetan 10:30-13:30 eta 18:00-20:30.

Andoain, 2021ko urriak 1.

La exposición 'FORMAL FORMAL' sumergirá a las y los andoaindarras en los procesos creativos del arte contemporáneo

La muestra inaugurada hoy recoge los trabajos multidisciplinares de Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur y Larraitz Torres

A partir de hoy las y los andoaindarras tienen la oportunidad de profundizar en las prácticas y procesos creativos del arte contemporáneo gracias a la exposición titulada *FORMAL FORMAL* que acoge la sala de exposiciones del Centro Cultural Bastero. La muestra, compuesta por obras interdisciplinares de **Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur y Larraitz Torres**, convertirá a las y los visitantes en partícipes de la creación y con este objetivo se organizarán actividades con diferentes grupos y estudiantes del pueblo.

La nueva propuesta, que se ofrecerá durante todo el mes (hasta el 30 de octubre), ha sido inaugurada hoy por la concejala de Educación y Cultura, **Txitxu Ruiz**, las cuatro artistas y la mediadora **Maite Alonso**. En la elaboración de los textos han participado **Iñigo Gómez, Itziar Gutiérrez y Ane Lekuona**.

La concejala ha destacado los aspectos divulgativos de esta propuesta, que ofrece "una oportunidad única para acercarse al arte contemporáneo y conocer de cerca los procesos creativos y reflexionar junto a las artistas", lo que "hará que nos convirtamos, más allá de ser meros espectadores, en cómplices de la creación". De esta manera, participarán en la iniciativa los centros educativos de la localidad, incluida la escuela Escivi, y el Bertso Taldea.

La propuesta de HARRIAK 2021 es una oportunidad para acercarse a los procesos creativos de la creación y a las diferentes prácticas del arte contemporáneo. Se trata de una iniciativa impulsada por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y que une en colaboración a artistas noveles, mediadores y salas de exposiciones. La iniciativa se desarrollará en el Centro Cultural Bastero de Andoain, donde tendrá lugar la exposición y las actividades divulgativas.

FORMAL FORMAL incluye obras plásticas, sonidos, textos y performance, con el fin de hacer aflorar las relaciones y los diálogos entre los diferentes medios de expresión. Primero la palabra, de ahí a sonidos y canciones y finalmente a objetos, las preguntas abiertas que se lanzan son: *¿Es realmente una canción lo que se muestra? ¿Qué implicaciones conlleva interpelar directamente al mensaje? ¿Empieza a existir algo desde el mismo momento en que se nombra?...* Se utilizarán como medio de expresión los dibujos, el sonido, el cuerpo, la escultura y la imagen. Esta reflexión, además, será compartida a través de diferentes acciones divulgativas con encuentros, actividades y entrevistas con diferentes grupos y agentes del municipio, especialmente dirigidas a jóvenes y adolescentes.

4 artistas guipuzcoanas multidisciplinares

Ane Azkona (Donostia, 1997) estudió Bellas Artes en Bilbao, tras estudiar en la academia de arte Atenas. Desde 2017 participa en exposiciones individuales y colectivas como *In and/or Out*, en la galería City Fuck de Thessalonika (Grecia). La obra tiene aspectos relacionales e identitarios que obligan a encuentros conceptuales entre elementos significativos del imaginario colectivo y la cultura pop. La práctica de la hondarribiarra **Sanda Cuesta** parte de la escultura, buscando la confusión, redirigiendo la atención. Ha presentado sus trabajos en diferentes contextos relacionados con el sonido como Ruido Fest, Le Club Larraxkito, Ertz, *Emisión 0* de Mugatxoan. **Larraitz Torres** (Irún, 1979) utiliza en sus obras materiales de imaginarios comunes como puente para reexpresar y posibilitar otros entendimientos. Ha presentado obras como Permanent Vacation Versión (Artium), *Inicio-Nowness* (la Casa encendida), *The landscape The song The make up* (Marfa, EE. INT. Night (Dai/Casco, Países Bajos) o *Analphabet Orquesta* (Tabakalera, Casco-Utrecht, Dai-Arnhem). **Jone Laspiur** (San Sebastián, 1995) estudió Bellas Artes en Leioa y se interesó principalmente por la UMSA y la escultura de Buenos Aires. Ha trabajado en el Espacio Azpi de San Sebastián y en 2019 recibió ayuda para la creación del Gobierno Vasco para desarrollar el proyecto *too less to o tolestu*.

La exposición, con entrada gratuita, se podrá visitar a partir de hoy, en horario habitual: lunes y viernes de 18:30-20:00 y sábados de 10:30-13:30 y de 18:00-20:30.

Andoain, 1 de octubre de 2021.